

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO BULETINA 113. zb.
2023ko urtarrila

www.ehu.eus/vitoria-gasteizko-ingeniaritza-eskola

EDUKIAK

Gestio akademikoa

1. 2021-2022 ikasturteko graduazioa
2. Lankideen aitortza (2022)

Tituluen sustapena

1. Zientzia Astea 2022
2. Ikastetxeetara ikustaldiak

Askotariko jarduerak

1. STEAM kultura arte kolaboratiboaren bitartez
2. Enpresetara ikustaldiak

Gestio akademikoa

1. 2021-2022 ikasturteko graduazioa

Ikasketak 2021/2022 ikasturtean amaitu zituzten ikasleen graduazio ekitaldia 2022ko azaroaren 3an egin zen, 18:00etan, ikastegiko ekitaldi aretoan. Ekitaldian agintari hauek bertaratu ziren:

- Manoli Igartua and., UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea.
- Ramiro González jn., Arabako diputatu nagusia.
- Gorka Urtaran jn., Vitoria-Gasteizko alkatea.
- Miren Artaraz and., Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria.
- Inés Gómez and., Sankyo Desarrollos Técnicos SL enpresako Finantza zuzendaria.
- Zuriñe Gómez de Balugera and., UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako zuzendaria.
- José Miguel Gil-García jn., UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Kalitate eta Jasangarritasun arloko zuzendariordea.

Presidentearen mahaian zeuden agintari horiez gainera, ekitaldian parte hartu zuen honako honek, diplomak entregatzeko:

- Ruperta Delgado and., UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako idazkari akademikoa.

Azkenik, publikoaren artean azpimarratzekoa da hainbat agintari egon zirela, besteak beste:

- Arabako Industria Adarreko Ingeniaritzako Gradudunen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialeko (COGITI) dekanoa eta dekanordea.
- Amadeo Álvarez, Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialekoa (COIIA).

Arabako Campuseko beste ikastegi batzuetako dekanook, zuzendariak eta koordinatzaileak.

Ekitaldi horretara ikasketak 2021/2022 ikasturtean amaitu zituzten ikasleak eta haien senitartekoak gonbidatu ziren, baita ikastegiko irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak ere.

Taula honetan ikus daiteke ikasle egresatuen kopuru osoa eta graduazio ekitaldira joan zirenak.

Titulazioa	Ikasle egresatuen kopurua		Bertaratutako ikasleak	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	19	5	8	5
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	33	5	17	3
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	8	12	2	4
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	15	7	6	6
Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua	35	1	23	0
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra	17	9	3	0
Guztira	127	39	59	18

Ikasle hauek jaso zuten espediente akademiko onenaren saria:

Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Jokin Uralde Arrue

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

Ikaslea: Gaizka de Prado Martínez

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Paula Arana Oregi

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

Ikaslea: Laura Eguiluz Misiego

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua (DUALA)

Ikaslea: Luis Alberto Pérez Angulo

Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra

Ikaslea: Ekaitz Oar Bustinza

2. Lankideen aitortza (2022)

Urteko azkeneko Eskolako Batzarrean, abenduaren 22an egindakoan, batzarrari dagozkion ohiko gaiak lantzeaz gain, zenbait lankideri aitortza egin zitzaien, gurekin hainbat urtez lan egin ondoren, aurten merezitako erretiroa hartu dutelako:

- Maite Alvarado Herrán
- Ignacio Díaz de Corcuera Díaz
- José Ignacio Ochoa de Eribe Vázquez
- Alejandro Rodríguez Andara
- Javier Sancho Saiz

Era berean, erakundean lanean 25 urte, mende laurdena, bete duten lankideei ere aitortza egin zitzaien:

- M^a Teresa De Miguel Ruiz
- Francisco José Llorens Villar

Zorionak guztiei!



Tituluen sustapena

1. Zientzia Astea 2022

Azaroaren 10etik 13ra UPV/EHUko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XXII. Astea egin zen, eta hainbat modalitatetan ikusi, behatu eta esperimendatzeko aukera izan genuen: txokoak, tailerrak, hitzaldiak eta lehiaketak.

Eskolan antolatutako tailerretako bat "Escape Lab: kode kimikoa" izan zen, Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Sailak antolatua. Ekimen horretan, REDOX erreakzioetan oinarritutako 3 esperimendu proposatu zitzaizkien gazte parte hartzaileei. Esperimendu/erronka bakoitza gaindituz gero, saioaren azken xedea lortzeko behar zituzten pistak lortzen zituzten parte hartzaileek: planeta salbatzen lagunduko zien elementu kimiko bat lortzea.

2. Ikastetxeetara ikustaldiak

Irailtik abendura bitartean, gure zuzendaritza taldearen ordezkari batzuek zenbait ikastetxetara ikustaldiak egin zituzten eta hainbat ikastetxeren ikustaldiak jaso zituzten gure eskolan; hain zuzen, hauenak:

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA CENTRO DE EDUCACIÓN SECUNDARIA	DATA FECHA
EKIALDEA BHI	2022/09/27
ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA	2022/10/06
SAN VIATOR IKASTETXEA (VITORIA-GASTEIZ)	2022/10/07
TOKI EDER IKASTOLA (VITORIA-GASTEIZ)	2022/10/11
FEDERICO BARAIBAR BHI (VITORIA-GASTEIZ)	2022/10/28
SANTA MARÍA-MARIANISTAS (VITORIA-GASTEIZ)	2022/11/16
IKASBIDEA IKASTOLA DURANA (ARABA)	2022/11/17
SANTA MARÍA-MARIANISTAS (VITORIA-GASTEIZ)	2022/11/21
OLABIDE IKASTOLA (VITORIA-GASTEIZ)	2022/11/28

Jarduerak

1. STEAM kultura arte kolaboratiboaren bitartez

Irailan, Eskolan egindako azken lan artistikoa inauguratu genuen, STEAM arte proiektu irekiaren barruan, "3D Structure 2022.Bremen".

Obra horretan lankidetzan aritu ziren Arabako Campuseko Erasmus ikasleak eta Eskolako AZPko langileak eta IRIak.

Pasa zaituz Eskolako kanpoko lorategitik eta ezagutu ezazu!



2. Enpresetara ikustaldiak

Abenduaren 29an, asteartean, Ingeniaritza Mekanikoko Gradu hiru mailako euskarako taldeko ikasleek Zarauzko Engranajes Juaristi enpresaren instalazioetan izan ziren, Igor Ansoategui irakaslearekin batera.

Bisita horrek landa praktiketan egindako eskaera bati erantzuten dio, zehazki "Makinen Zinematika eta Dinamika" irakasgaikoei.



Halaber, abenduaren 15ean, Automobilgintzaren Ingeniaritza Graduko hirugarren mailako ikasleak Fagor Ederlan enpresak Arrasaten dituen instalazioetara joan ziren.




Beste batzuk

Azkenik, Jon Álvarez Gordejuela eta Aitor Arregui lankideak (Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saileko irakasleak) eta Oscar Barambones (Sistemen Ingeniaritza eta Automatika Saila) zoriondu nahi ditugu, Stanford University ospetsuak argitaratzen duen Ranking of the World Scientists: World's Top 2% Scientists delakoaren azken aleko argitalpen zientifikoetako aipu kopuru handiena duten % 2ko talde hautatuan daudelako.

Hirurak azken urteari dagokion zerrendako 124 kideren artean agertzen dira (kasu honetan, 2021ean egindako aipuak jasotzen ditu).

Jon 82. postuan, Oscar 104.ean eta Aitor 113.ean.

Gainera, Oscar Barambones Senior zerrendako 99en artean ere agertzen da; ikertzaileak bere ibilbide profesionalean jasotzen dituen aipuei egiten die erreferentzia.



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ